



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AMURRIOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2001.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Amurrioko Udalak 2001eko urtealdian gauzatu duen Kontu Orokorrari eta ekonomia-finantza jarduerari buruzko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak honako alderdi hauek besarkatu ditu: kontularitzakoak, legezkoak, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta gainera, Udalaren finantza egoera aztertu du.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk aldeko iritzia eman du Udalak legea bete izanari dagokionez; hala ere, hainbat salbuespen azaleratu ditu fiskalizazioan aztertutako zenbait obra kontratutan, horniketa eta bestelako erosketa eta zerbitzuetan, guztira 1.394 mila euroko zenbatekoa egin dutenak. Halaber, 553 mila eurotan erositako lursailen balioa zehaztuko duen aurretiazko peritu txostenik eza ere azpimarratu du; baita, bi Udaltzaingo plaza betetzeko Toki Administrazioan emandako zerbitzua soilik baloratu izana, eta ez beste administrazio batzuetan emandakoa.

Kontuei dagokienez, txostenak hainbat zuzenketa adierazi ditu Udalak aurkeztutako Kontuetan, horien gaineko iritzia positiboa izan delarik.

HKEEren iritzira, Udalaren finantza egoera zorpetze maila handiaren eraginpean dago; 1999ko urtealdiaz geroztik, berriz, bilakaera positiboa izan du.

HKEEk Sarreraren atalean azpimarratu du Amurrioko Udalak bete egin dituela erakunde fiskalizatzaileak 1994ko urtealdiaren gainean luzatu zituen gomendioak.